

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko irailaren 15eko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena

— **Presa fiskaleko dekretu arauemailea:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

4/2026 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa zerga araudira egokitzeari.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

567/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan izango dituen ordezkariak izendatzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

568/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko langileentzako ALET (Administrazioako Langileen Euskarazko Trebakuntza) programarako kontratua luzatzeari, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 7ko 525/2022 Erabakiaren bidez onetsi baitzen.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

569/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, 2027. urtean funtsez hornitzeko "Informatika: eskaeren software kudeaketa" partida.

570/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, 2027. urtean funtsez hornitzeko "Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak. 2026-2027ko ezohiko deialdia" partida.

571/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, 2026. eta 2027. urteetan funtsez hornitzeko "Araba Interkoop: enpresak 2026" partida.

572/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, 67.000,00 euroko M_T00/2026/0000000068 kreditu transferentziaren espedienteari, funtsez hornitzeko "Artzaintza estentsiboko prebentzio neurrietarako laguntzak" partida.

573/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Gizarte Politiken Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Pertsona oinarri duen eredura egokitze Etxebideako obrak" partida.

574/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea M_T00/2026/0000000091 kreditu gaitzearen espedienteari, 30.000,00 euroan, "Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola: Biltzarra" izeneko partida sortu berria funtsez hornitzeko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta.

575/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, 2027. urtean funtsez hornitzeko "Araba Innova - Deskarbonizatu: enpresak 2026" partida.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

576/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Araba Garapen Agentzia SARI 445.910,00 euroko ekarpena egiteari, Arabako Parke Teknologikoaren 2026ko kapital sozialaren gehikuntzan parte har dezan.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

577/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Amurrioko Udalak elkarlan hitzarmen bat sinatzeari, indarkeria matxistako egoeretan esku hartzea koordinatzeko.

578/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Arabako Errioxako Kuadrillak elkarlan hitzarmen bat sinatzeari, indarkeria matxistako egoeretan esku hartzea koordinatzeko.

579/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Arabako Lautadako Kuadrillak elkarlan hitzarmen bat sinatzeari, indarkeria matxistako egoeretan esku hartzea koordinatzeko.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

580/2026 Erabakia, irailaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena Ezestea Aguraingo Udalak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 420/2026 Erabakiaren aurka egindako errekerimendua.